



## BERDINTASUNA GIZONEN ERRONKA ERE BADA

Emakundek urte bete darama Gizonduz ekimen aintzindaria sustatzen. “Berdintasunak gizona go egiten zaitu” lelopean, berdintasuna eta genero gaiekiko gizonen konpromisoa lantzea du helburu. Azken urratsa, Euskal Herriko aitei balio ez sexistetan sentsibilizatzeko materialekin osaturiko motxilak oparitzea izan da.

June Fernández

Emakunderen datuen arabera, genero kontuekin lotura duten hitzaldi, ikastaro zein masterretara gizonen partaidetza ez da ezta %10era heltzen. Gaur egun, gizarteak berdintasun printzipioa onartu egiten du, baina ideia horrek ez du konpromiso aktiborik eragin gizonen artean. Baina kontua zera da: genero berdintasunaren alde egitea emakumeen eskubideak bermatzeko modua izan ez ezik, gizonentzat ere onuragarria izan da eredu maskulino tradizionala kolokan jartzea. Hain zuzen, ideia hori du oinarrian Gizonduz-ek, Emakundek iragan urtean martxan jarritako ekimenak. “Gizarte sexistak ezartzen dituen rol eta estereotipoek, pertsonak beren ahalmenak garatzea oztopatzen dute. Berdintasunak pertsona hobeak egiten gaitu eta, neurri horretan, gizonak gizona go”, azaldu du Ander Bergara Gizonduz-eko koordinatzaileak.

Euskadin egon bazeuden gizontasunaren inguruan hausnartzen zebiltzan gizon talde zein adituak, baina EAeko gobernuak gizoni zuzenduriko genero politikak sustatzea zerbait aitzindaria da. Izan ere, horrelako egitasmorik ez zen ezagutzen orain arte. Salbuespena genuke Berdintasunaren Aldeko Gizonen Saila, 1999. urtean Jerez de la Fronteiran (Kadiz) erakunde publikoek abiarazitakoa.

Azken belaunaldietan, maila pertsonalari begira, aldaketa handiak bizi izan dituzte emakumeek. Ondorioz, beren buruen erabateko jabetze prozesuan murgilduta daude une honetan. Dena den, lan merkatuan, hezkuntza mailan zein eremu publikoan, besteak

beste, emakumeek modu aktiboan parte hartzeari ekin dioten bitartean, gizonak ez dira zaintza eta etxeko lanetan neurri berean inplikatu. Oro har, gizonak ez dute dagoeneko agortuta dauden eredu maskulino tradizionalaren baloreekin (lehiakortasuna, oldarkortasuna...) erabat hautsi. Horren aurrean, Gizonduz-ek zera defendatzen du: gizonen inplikaziorik gabe berdintasuna ez da posible; berdintasuna pertsona guztien onurako da; berdintasuna behar estrategikoa da herrien garapen sozial eta ekonomikoari begira; gainera, berdintasunaren aldeko jarrera nagusi da une honetan.

Gizonduz-ek bultzatuta, hiru urteko epean hainbat proiektu garatuko dituzte: sentsibilizazio eta trebakuntza programak; gizon taldeak eta tailerrak sustatzeko diru-laguntzak; aitatasun baimenak hedatzea, eta abar. Orain arte bi izan dira aurkezturiko ekimen nagusiak: Euskal gizonen eskutitza, berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontra dokumentua eta aitatasun motxila. Eskutitza Ibarretxe lehendakariak aurkeztu zuen kultura, politika zein kirol munduko gizon talde batekin, 10.000 gizonen sinadurak lortzeko xedearekin. “Urrats sinbolikoa da hau, rol eta estereotipoak sistema sinbolikoan kokatzen baitira. Baina harago joan nahi dugu. Kontua ez da gutuna sinatzea eta kitto; aitzitik, eskutitz horretan aipatzen diren konpromisoak maila pertsonalean betetzea da helburua, masa kritiko sendoa sortzeko”, azpimarratu du Bergarak.





Bestalde, Emakundek balio ez sexistetan sentibilizatzeko materialekin osaturiko aitatasun motxilak oparituak dizkie aita izango diren 3.000 bat lagunei. Bergararen esanetan, aitatasuna mementu aparta da berdintasunaren inguruko jarrera sustatzeko, gizonak beren bizimodua eta bikote harremana moldatu behar baituzte nahitaez: “Al daketa horiek aprobetxatu nahi ditugu berdintasun jarrera bul-tzatzeke”. Motxilan, besteak beste, Aitzol Aramaiok zuzenduriko Aitak dokumentala dago. Bertan, hainbat gizonak (bartzuk ospetsuak, esaterako Kepa Junkera zein José Ramón Soroz aktorea) aitatasunaren esperientziak sortzen dituen zalantzak, beldurrak, poztasunak eta kontraesanak ematen dituzte ezagutzera. Motxilan bi gida ere badi-

ra: batean, aita igualitarioa izateko aholkuak eta gogoetak bildu dituzte, eta bestean maskulinitatearen eraiketa soziala aztertu eta eredu hori aldatzeko aukerak azaldu dituzte. “Material gehienak amei zuzendurik egoten dira”, oharrarazi du Gizonduz-eko koordinatzaileak, “baina guk aitek hauraren jaiotzan duten garrantzia azpimarratu nahi izan dugu”. Gainerako edukien artean ipuin ez sexista bat, bikote kideen artean etxeko lanak nola banatzen diren frogatzeko jolas bat, Berdinometroa, eta aitatasun igualitarioaren aldeko apustua adierazten duen kotxean jartzeko eransgarria ere badaude. Material guztiak Gizonduz-en web atarian ([www.euskadi.net/gizonduz](http://www.euskadi.net/gizonduz)) begiratu daitezke. Gune horretan eskutitza sinatu daiteke eta baita blog batean parte hartu ere. F

noviembre - diciembre / 2008



## Euskal gizonen eskutitza berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren kontra

Eskutitza hau sinatzen dugun gizonok badakigu gure gizarteak ez dagoela berdintasunik emakumeen eta gizonen artean, ez harremanetan eta ez botere-banaketan. Egoera hau aldatzea bidezkoa dela uste dugu eta horretarako konpromiso hauek hartuko ditugu:

1. Indarkeria matxista gaitzetsiko dugu eta ez dugu indarkeria arazoak konpontzeko zilegizko tresna gisa hartuko.
2. Geure nortasuna libreki eraikitzen saiatuko gara, rolak eta estereotipoak alde batera utzita, berdintasunik gabeko gizarte honi eusten dioten eguneroko balio eta jarrerak berraztertuz.
3. Etxeko lanak eta familiakoak zaintzeko lanak geuretzat hartuko ditugu.
4. Askotariko sexualitate askea lortzearen alde egingo dugu, mitorik gabe, konparaziorik egin gabe eta ezer ezarri gabe.

## Carta de los hombres vascos por la igualdad y contra la violencia hacia las mujeres

Los hombres que firmamos esta Carta somos conscientes de que vivimos en una sociedad en la que existe una manifiesta desigualdad en las relaciones y en el reparto del poder entre mujeres y hombres. Consideramos que esta situación debe cambiar y por ello nos comprometemos a:

1. Manifiestar nuestro frontal rechazo a la violencia machista y desterrar el uso y la legitimación de la violencia como forma de solucionar los problemas.
2. Intentar construir nuestra identidad personal libremente, al margen de roles y estereotipos, replanteándonos los valores y comportamientos que sostienen esta sociedad desigual.
3. Asumir de forma igualitaria el trabajo doméstico y de cuidado de otras personas.
4. Avanzar hacia una sexualidad libre y diversa, sin mitos, sin comparaciones ni imposiciones.



Egizu haiek bezala. Hartu konpromezua berdintasunarekin eta sinatu. Haz como ellos. Comprométete con la igualdad y firma en

[www.euskadi.net/gizonduz](http://www.euskadi.net/gizonduz)

